


Altzako doinu gazteak

Altzako Gazte Asanbladak eta Zurrumbilo Komunikazio Taldeak hainbat musika talderen abestiak bildu dituzte disko batean. Diskoa kalean dago, eta ale asko salduz gero, Altzako gazteek beste disko batzuk kaleratzeko asmoa dute.



Sara Soria
Gazte Asanbladak eta Zurrumbilo Komunikazio taldeak, Altzako jaietan eta Altzako kultur etxean kontzertuak antolatzen hasi zirenetik, disko bat plazaratzeko asmoa izan dute beti, eta egitasmoa gauzatu berri dute. Kaleratutako diskoa 4 eurotan eskura daiteke leku askotan: Altzako Ipotx, Santa Barbara, Zumardi eta El Nido tabernetan; Parte Zaharreko

Zuhaitz, Urraki eta Ilargi tabernetan; Lasarteko Sustrai tabernan; eta Iruñean, Eguzki Banaketak enpresaren bidez. Diskoan auzoko kontzertuetan parte hartu duten hainbat taldeen kantuak bildu dituzte, baita Altza inguruko taldeenak ere. Besteak beste, Señor No, M.C.D. edota Astrozombies taldeen abestiek osatzen dute diskoa. Kantuak ez ezik, letrak eta Altzako gaztetxea ixtearen aurkako idatzia ere jaso dituz-

Banku berriak

Argazkian ikusten den bezala, Altza gainako eserleku zaharrak kendu eta haien ordez, berriak jarri dituzte frontoiaren eta elizaren inguruko plazan. Horrez gain, bankuak ez zeuden lekuetan ere jarri dituzte, hau da, Anaiak tabernaren eta udaletxearen artean.

te diskoan. Gazte Asanbladako kide Aritz Lujanbiok argitu digunez, lau helburu ditu diskoak: komunikazioa lantzen jarraitzea, Altzako gazteak mugimenduan daudela agerian uztea, sos batzuk lortzea eta azkenik, oso ezagunak ez diren inguruko musika taldeak laguntzea, diskoan abesti bana aurkezteko aukera emanez.

Oraingoz, 300 ale plazaratu dituzte eta gazteok diotenez, salmentatik etekinik lortuko balute, diru hori kontzertuak antolatzeko erabiliko lukete. Are gehiago, ale asko saltzen badituzte, kaleratu berri duten diskoa bilduma baten aurrenekoa izango da.

Gazte Asanbladako eta Zurrumbiloko lagunek kaleratu dute diskoa, eta egitasmoarekin jarraituz gero, talde bakoitzari bere diskoa ateratzeko aukera eman nahi liokete.

300 ale

Gazte Asanblada eta Zurrumbilo taldekoek diskoa ordengailu bidez grabatu dute, musika taldeen laguntzarekin.

RUTI
 KOLLEKTION VOL.1

- 1 INFRO
- 2 OBLIGACIONES *Enfer*
- 3 NOR JAINKOA BEZALA *Reg. Iratzenarek*
- 4 BELDURIEZ *kon. Jago. Sallatzenak*
- 5 M.C.D. *te. Iratza*
- 6 TEAR! *Profetaren eliza*
- 7 JOUSILOULI *Erred. abestiekak izateko*
- 8 2 KATE *Irakabak*
- 9 AMONIAKOR7 *te. Iratza*
- 10 SENOR NO *Irakabak eta el. Iratza*
- 11 NEKEZ *Irakabak*
- 12 SKUASAMENTO *Irakabak*
- 13 ASTROZOMBIES *te. Iratza*
- 14 EZIN IZAN *Irakabak*
- 15 NCC *scandal for life*
- 16 GAIZKINE *Irakabak*
- 17 FIST FUCKING *Irakabak*

Altzako Gazte Asanblada
 Zurrumbilo Komunikazio Taldea

Alboka
Taberna
 DONOSTIA

Cake con Leche
 San Martin 5, 20005 Donostia, Tel. 943 45 63 95

BAR - ASADOR
Jaizkibel
 Autonomia 9, behea
 © 943 45 83 72 20006 DONOSTIA

Museo Bordonaba
del Whisky
Taberna
 DONOSTIA
 Bulebarra, 5
 Tel.: 943 426478

La Antigua Cerveceria
 (Gure-Txokoa)
 Eguneroko bazkaria
 San Martin 38
 DONOSTIA

Erdialdeko txokorik onenak